



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2019KO ABUZTUAREN 19KOA, INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, GASTEIZKO «EKIALDEKO ZABALPENA-3, SALBURUA PARKEA» 15. SEKTOREAREN (E-3 ETA E-4 GUNEAK) PLAN PARTZIALAREN SEIGARREN ALDAKETAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA ZEHAZTEN DUENA.

AURREKARIAK

2019ko maiatzaren 9an, Gasteizko Udalak Gasteizko «Ekialdeko zabalpena-3, Salburua parkea» 15. sektorearen (E-3 eta E-4 guneak) Plan Partzialaren seigarren aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta hasteko eskaera egin zuen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak (3/1998, otsailaren 27koa) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (21/2013, abenduaren 9koa) xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, sektoreko legerian eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) V. eranskineko formularioa.

2019ko ekainaren 27an, kontsulta-izapidea egin zen, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoa. Honako hauek dira ingurumen-organoak kontsultatu zituen administrazio publikoak eta interesdunak:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (Uraren Euskal Agentziaren bitartez).
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza.
- Arabako Ekologistak Martxan.
- Hontza Natura Elkartea.
- GADEN (Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea).
- «Eguzkizaleak» aisialdirako elkartea.

Bestalde, data horretan bertan, eragindako administrazio publikoen eta interesdunen eskura jarri ziren planaren zirriborroa, sektoreko legeriak eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa; jarri ere, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean, planaren gaineko interesa izan zezakeen oro identifikatzeko asmoz.

Dagokion legerian ezarritako epea amaituta, honako hauen erantzunak jaso dira: Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza, Kultura Ondarearen

Zuzendaritza eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza, eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza. Espedientean jaso da horren guztiaren emaitza.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan diotenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauxe da ingurumen-ebaluazioaren xedea: ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuta, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorraren (3/1998, otsailaren 27koa) 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek modu egokian bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko analisia, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Era berean, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.b) artikuluan xedatutakoa aplikatuta eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) 4. artikuluari jarraikiz, planei eta programei ere ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie, bai eta haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek onartzen baditu eta horiek legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira Natura 2000 Sareko guneei eragiteagatik ebaluazio bat behar dutelako, abenduaren 13ko 42/2007 Legeak (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa) aurreikusitako baldintzetan.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta xedapen hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012

Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Formulatzeari, ingurumen-ondoreetarako bakarrik, Gasteizko «Ekialdeko zabalpena-3, Salburua parkea» 15. sektorearen (E-3 eta E-4 gunek) Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) seigarren aldaketaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua, honako baldintza hauetan:

1.- Planaren xedea

Plan Partzialaren seigarren aldaketa -BASKONIA KIROL HIRIA SL sozietateak sustatua- bi guneri buruzkoa da: Ekialdeko zabalpena, 15. sektoreko E-3 eta E-4 gunek. E-4 gunea urbanizatuta dago, gaur egun, baina E-3 gunea garatzeke dago.

Plan Partzialaren seigarren aldaketa helburu hauen arabera planteatzen da:

E-3 guneari dagokionez:

- Guneko estratuen geometria berria ezartzea, azalera osoa aldatu gabe eta aurreikusten diren kirol-erabileretarako egokituta: B estratua kendu eta, horren ordez, A estratua jarri da, beste egitura batekin; ondorioz, hegoaldera begira dagoen gunearen azaleraren bi heren hartu dira. Estratuen geometria berriari esker, A estratuan entrenatzeko arauzko bi futbol-zelai egin ahalko dira, inguruko zerbitzuak barne.

Planaren zirriborroaren arabera, estratifikazioa eraikitako bolumen handiena gunearen iparraldean kokatuta egingo da. Hezeguneetatik gertuen dagoen eremuan eraikigarritasun txikienerako estratua dago (A estratua), aurreikusten diren kirol-erabilerak direla eta -eraikigarritasun handiagoa zuen B estratua kenduta-, eta hezeguneetatik urrutien dagoen eremuan, eraikigarritasun handiagoko estratua kokatu da (C estratua).

- Gunerako ezarritako erabileren erregimena aldatzea eta handitzea; kirol-ekipamenduetarako erabiliko da. Erabilera horiek ekipamenduen erabilera xehatuak dituzten eraikuntzetarako ere izango dira, baldin eta hirugarren sektoreko edo merkataritzako erabilera orokorrarekin bateragarriak badira. Ez da eman gunearen iparraldean kokatutako eraikinek izan litzaketen hirugarren sektoreko eta merkataritzako erabileren definizio zehatzik.
- Eraikuntzaren gehieneko altuera aldatzea eta eraikuntza-parametroak berriz zehaztea. A estratuaren gehieneko altuera 8 metrokoa izango da (B estratuak, aldiz, 11 metroko eraikigarritasun-altuera zuen). C estratuak 14 metro zituen indarrean dagoen antolamenduan, baina 15 metro izango ditu.

- Plan Partzialaren lehen idazketan ageri zen espazio libre pribatuaren azalera gutxitzea; izan ere, ibilgailuentzako aparkaleku handi bat egitea aurreikusten zen, hirugarren sektoreko eta merkataritzako erabilera erakineei lotuta. Planteatzen diren kirol-ekipamenduen erabilera berriek ez dute behar aparkalekua egiteko gordetako espazioa. Espazio libre berriak tamaina askoz txikiagoa izango du, eta iparraldeko sarbidearen alboan dago kokatuta, gainerako guztiak antzera.
- Beste aldaketa batzuk:
 - C estratuko lurzatiaren gutxiengo azalera murriztea, hala, estratu horretan, bi lurzati bereizi baino gehiago jarri ahal izateko.
 - Sestra azpiko solairuaren okupazio-azalera aldatzea, sestra azpiko eraikuntzak hezeguneen eragin-eremutik ahalik eta gehien aldentzeko asmoz. C estratuan, sestra azpiko solairuan mugaraino irits daiteke, baina, A estratuan, sestra azpiko eraikuntzak ezin du eraikuntzaren atzeraemangunea mugatzen duen lerroa gainditu.

E-4 guneari dagokionez:

- Gunerako ezarri den erabilera-erregimena aldatzea eta handitzea. Erabilerak hirugarren sektoreko eta merkataritzako erabilera orokorrarekin bateragarriak diren ekipamenduen erabilera xehatueta izango dira.
- Hirigintza-parametroak argitzea eta aurreko aldaketaren fitxan behar bezala ageri ez ziren azalera-datuak eguneratzea.
- Sestra azpiko solairuaren okupazio-azalera aldatzea, aurreko kasuan adierazi diren irizpide berberekin (E4- guneari azpiko sotoak hezeguneetatik aldentzea). Kasu honetan, eta, C estratuan bakarrik, sestra azpiko solairurako sarbidea (maldan) E-4 guneari mugaraino irits daiteke, gainazalean eraikuntzaren atzeraemangunea mugatzen duen lerroa adierazi behar izan gabe.

2.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia

Ingurumen-azterketa estrategikoak gutxiengo eduki hau hartu beharko du barne: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa (I. eranskinean jasotakoa ere kontuan izan behar da).

Eremuaren ezaugarriak eta gauzatu nahi diren jarduketak kontuan izanik, honako gai hauek jasoko dira:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

2020rako IV. Ingurumen Esparru Programan jasotako helburu estrategikoetan eta jarduketa-ildoetan oinarrituko da plana. Baloratuko da Planak nola barne hartzen duen 2.1. jarduketa-ildoak: *karbono-isurketa txiki ekonomia lehiakorra bultzatzea; zehazki, 18. jarduketa. Energia-aurrezpena eta eraginkortasuna indartzea maila guztietan (etxebizitza eta*



eraikinak, mugikortasuna, industria, zerbitzuak, lehen sektorea, herri-administrazioa eta produktuen kontsumoa) eta energia berriztagarrien sorkuntza bultzatzea, bai eta 3.1 jarduketa-ildoak ere: bitartekoen kalitatea hobetzeko bideari eustea; bereziki, 31. jarduketa. Azaleko (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko eta eremu babestuetako (bainatzeko tokiak, hartuneak, nitratoetikiko eremu zaurgarriak) ur-masen egoera ona lortzea.

Horretaz gain, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean (3/1998, otsailaren 27koa) bildutako irizpideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasangarriaren printzipioak:

- a) Lurzorua zentzuz erabiltzea eta lehendik ere artifizialduta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, lurzoru naturala urbanizaziotik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren bidez, mugikortasunaren bidez eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- d) Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenetazioa sustatzea.
- g) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketak kontuan hartu behar du proposatutako jarduketetan sartzen direla Planaren aldaketan aplikatu beharko diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, aipatutako garapen jasangarriko printzipioetatik datozenak.

B.- Ingurumen-ebaluazioaren xede den eremu geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak.

Plan Partzialaren eremua (Ekialdeko zabalpena, 15. sektorea) espazio zabala da, 22,68 hektareakoa, eta nagusi dira gizakiaren eragina nabarmen jasan duten azalerak. Lurzati eraikiak eta urbanizatuak eta hirigintzaren aldetik garatzeke dauden lurzatiak aurki daitezke, eta lehen lurzoruari ematen zitzaizkion erabileren ondorioz (zereala lantzen zen), azken hamarkadetan, landaredi erruderal-nitrofiloa garatu da, nagusi izanik belar-estratua eta zenbait zuhaitz- zein zuhaixka-espezie; bai eta aurrenetako espezieak ere, hala nola makala.

Plan Partzialaren seigarren aldaketaren xede diren guneei dagokienez (E-3 eta E-4 guneeak), adierazi behar da E-3 gunea hirigintzaren aldetik garatzeko dagoela eta, beraz, landare-estaldura erruderalizatua duela; E-4 gunea, ordea, urbanizatua dago, eta bertan dagoen landaredia lorategi-itxurakoa da.

E-3 eta E-4 guneeetan ez da aurkitu interes geologikoko punturik, ezta ur-punturik ez sare hidrografikoko beste elementurik ere. Ez dago kutsatuta egon daitekeen lurzorurik. Ez dago, ezta ere, bateragarritasunik naturagune babestuekin, korridore ekologikoekin, Batasunaren intereseko habitatekin ez kultura-ondareko elementuekin. Bi guneeak Gasteizko ikuspegi-eremuan sartzen dira, eta oso ohikotzat jotzen den paisaia baten barruan daude.

Plan Partzialaren seigarren aldaketaren eremuaren zati bat interes hidrogeologikoko kokapenean sartzen da; hain zuzen ere, Gasteizko kuaternarioko metaketa alubialek eta alubio-kolubialek osatutakoan. Eremuak iragazkortasun handia dauka, eta akuiferoa kutsatzeko arriskua ere handia da.

Eremuko ingurumen-baldintzatzailearik handiena Salburuko hezeguneetatik gertu egotearen ondoriozkoa da. Bi guneei (E-3 eta E-4) hegoaldean egiten dute muga hezegunearekin; Euskadiko Natura 2000 Sarearen barruan dago eta Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) da. Gainera, Salburua nazioartean garrantzia duten hezeguneen RAMSAR zerrendan dago, eta Euskadiko Hezeguneen LPSren II. taldekoa da (antolamendu xehatua egiten da).

Aipatu ditugun bi guneei (E-3 eta E-4) Natura 2000 Sareko espazioaren babeserako eremu periferikoaren barruan daude kokatuta. Babeserako eremu periferikoan Habitategi buruzko Zuzentarauaren 6.3 artikulua araubide prebentiboa aplikatzen da (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikulua), eta helburutzat du hezegunetik gertuen dagoen ingurunean eragin negatiboak ez ezik alterazioak prebenitzea baliabide hidrikoaren kantitateari eta kalitateari dagokienez; hala, horren mende dauden habitatak, espezieak eta prozesu ekologikoak kontserbatzea bermatzeko.

Salburuaren kasuan, babeserako eremu periferikoa mugatzeko irizpidea geologikoa edo hidrologikoa da, eta bat dator Gasteizko akuifero kuaternarioaren lurpeko birkarga-guneei. Beraz, barne hartzen ditu akuifero kuaternarioko eremuak -drainatzeak hornitzen ditu hezeguneei (lurpeko birkarga)- eta ubideak -etengabe edo aldizka husten dute ura-. Horrez gain, hezeguneko erreka influenteak ere barne hartzen ditu.

Salburuko hezeguneei dituen ingurumen-balio garrantzitsuen artean, hezegunea bera alde batera utzita, Plan honen ondoriozko jarduketak jasateko sentikorra izan daitekeen arren, hegazti-faunen ondorioz, eta, bereziki, hegazti-fauna akuatikoaren ondorioz, txertatu da espazio hori nazioarteko garrantziko hezeguneen RAMSAR zerrendan, bai eta HBBE gisa sailkatu ere. Salburuan espezie mota ugari daude. Penintsula mailako espezie mehatxatuak igarobidean edo negu-pasa aurkitzen direla kontuan izateaz gain, ez dugu ahaztu behar eremua garrantzi handikoa dela, Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskineko hegazti-espeziei EAEn ugaltzeko duten toki bakarra baita. Iberiar penintsula mailan, udazkeneko migrazioan zehar, ur-benarrizaren (*Acrocephalus paludicola*) sedimentazio-leku gisa aipagarria da.

Ez dugu ahaztu behar, ezta ere, Salburuko kiropteroen komunitateak duen garrantzia, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta/edo IV. eranskineko espezie mehatxatuekin.

Hezegunea bera eta hegazti-fauna eta kiropteroen komunitatea Salburuko KBE eta HBBE kudeatzeko funtsezko elementu dira, ekainaren 30eko 121/2015 Dekretuaren (Salburua Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izendatzeko eta haren kontserbazio-neurriak onartzekoa) arabera.

Bestalde, Salburua interes bereziko eremua da espezie mehatxatu batzuentzat (kudeaketa-plana daukate indarrean); esaterako, uhalde-enararentzat eta bisoi europarrarentzat.

Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertu behar du planteatutako proposamenak bat datozen ingurumen-balioak identifikatzen, garatzen eta babesten dituzten legeek araututakoarekin. Natura-ingurunean izan lezakeen eraginaren analisia jaso beharko da azterketan.

Planteatutako jarduketaren garapenak sortutako inpaktuak identifikatu eta balioetsiko dira. Identifikatutako inpaktu guztietatik berariaz nabarmendu beharko dira garrantzitsutzat hartutakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak jasotzen duenez, balioetsi beharko da paisaia integratzearen azterketa sartu beharko den, paisaia inpaktu esanguratsua izan dezaketen obra- edo jarduera-proiektuen dokumentazio osagarri gisa.

C. Jarduketak egiteko egokiak ez diren eremuak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena. Apartatu hau idazteko, gutxienez aurreko apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan.

Kontuan hartu behar diren ingurumen-arriskuei dagokienez, akuiferoak kutsatzeko arrisku handiko gunea denez, Gasteizko akuifero kuaternarioaren lurpeko birkarga-guneei eragiteko aukera dago. Akuifero horrek, hain zuzen, Salburuko hezeguneak hornitzen ditu, eta, bertako hegaztien eta kiropteroen komunitatearekin batera, funtsezko elementuak dira KBE eta HBBE eremuetan. Halaber, kontuan izan behar da eremuan kudeaketa-planak dituzten fauna-espezieak daudela.

D. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

Azpmarratzen da gehiago eta sakonago aztertu eta baloratu behar direla honako hauen ondoreak:

- Lurpeko fluxuen gaineko lurzorua iragazgaitzea eta Salburuko hezegunearen araubide hidrologikoa.
- Argiak eta soinuak bisoi europarrean eta hegazti-faunan izan dezaketen eragina.

E. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koa) IV. eranskinean ezarritako edukia bildu beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Aurrekoarekin bat etorritz, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Egungo ingurumen-egoera.
3. Ingurumenean egon daitezkeen ondorio esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Aukerak hautatzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantz, Azterketa) behean azaltzen diren alderdietan sakondu behar duela, adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak

Azterketak planaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, eta beste plan eta programa lotuekin dituzten harremanei buruzko analisi labur bat. Gainera, ingurumen-alderdiak planaren prestaketan nola txertatzen diren azaldu beharko du. Aztertu beharko da Planaren aplikazioak nola laguntzen duen ingurumen-helburuak txertatzen.

Plana prestatzean, Azterketak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Ebazpen honetako Lehen.2.A apartatuan jasotako ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak. Justifikazio hori bai arauetan bai Planean bertan ezarritako adierazleen eta muga erabileran oinarrituko da.

Apartatu honetan, lurralde-antolamenduko planak eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste plan sektorial batzuen deskribapen xehea sartuko da, eta, dagokionean, Plan Partzialaren aldetako eremuan berariaz eragiten duten aurreikuspenak zehaztuko dira.

Ingurumen-azterketa estrategikoak beharrezkoa den informazio guztia barne hartu beharko du, eta, bertan, argi eta garbi identifikatu beharko da zein den indarrean den antolamendu xehakaturia eta zein den proposatzen dena.

2. Egungo ingurumen-egoera

Azterketak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuta eta plana aplikatu ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduta, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita ebazpen honetako Lehen.2.B apartatuan ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotako edozein gunerekin erlazionatutako arazoak ere.

Horrez gain, lurraldearen ingurumen-unitate homogeenak definituko dira, horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, Planarekiko proportzioa duen eskalan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleetan bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta txosten honetako aurreko apartatueta adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan izan beharko dira, gutxienez, EAEko lurraldeari dagozkion adierazle hauek:

- Eremu osotik, planteatutako beharizana hornitzeko eraldatu behar den azalera naturalaren ehunekoa.
- Espazio libreetara zuzenduko den azaleraren ehunekoa.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterketak, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin. Horrez gain, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko egon daitezkeen zailtasunak justifikatuko dira.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Apartatu honetan, ingurumenean eragina izan dezaketen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea -ondare historikoa barne-, klima-faktoreak, klima-aldaketa izan dezakeen eragina -bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia-, ondasun materialak, kultura-ondarea, paisaia eta faktore horien arteko erlazioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskaintako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuta. Eragin horiek barnean hartu behar

dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du azterketak, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta; bereziki, planaren eremuko ingurumen-alderdi garrantzitsuenetan edo sentikorrenetan kalteak eragin ditzaketenak (akuiferoa, hezegunea, hegazti-fauna, kiropteroak, kudeaketa-plana duten espezieak, etab.).

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira, eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da. Eta, identifikatutako inpaktu guztietatik berariaz nabarmendu beharko dira garrantzitsutzat hartutakoak.

Bereziki, planaren eremua Salburuko (ES2110014) babes-eremu periferikoan (KBE) dagoenez, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikulua xedatutakoa hartu behar da kontuan: *«Edozein plan edo proiektu aipatu lekuei eragin ahal badie (dela banaka dela beste plan edo proiektuekin bateratuta), nahiz eta plan horrek harreman zuzenik ez izan lekua kudeatzearekin, edota beharrezkoa ez izan, zer eragin izan ditzakeen aztertuko da. Azterketa hori, betiere, lekua babesteko helburuak aintzat hartuta egingo da. Proiektuak leku horretan izan ditzakeen eraginaren ebaluazioaren ondorioak ikusita, eta 4. apartatuan xedatutakoa beterik, Estatuan eskumena duten agintariak plan edo proiektuarekin bat etor daitezzen, aurrez, ondo egiaztatu beharko da proiektuak ez diola kalterik eragingo lekuari, eta, hala behar denean, jendaurrean jarri beharko da ikusgai».*

Zaratarri dagokionez, bai gaur egungo bai etorkizuneko ingurumen-zarata dela eta, ondoriozta daiteke kanpoko espazioan kalitate akustikoko helburuak betetzen direla. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua betetzearren, inpaktu akustikoaren azterketa bat gehitu beharko da, arau horren 37. artikulua eta hurrengo arabera; eta, beraz, aukeren azterketa bat barne hartuta. Aldatuko den eremuaren -Natura 2000 Sarearen espazio baten babes-eremu periferikoan kokatuta- ingurumen-sentikortasuna dela eta, ebazpen honetako Lehen.2.B apartatuan adierazitako ezaugarriekin eta balioekin, beharrezkoa izango da proposatzen den antolamenduak eragiten duen inpaktu akustikoa, kontuan hartuta espazio horren ingurumen-balioak eta, bereziki, alterazio horiei dagokienez sentikorrenak diren espezieak.

4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko apartatuan identifikatutako ondorio adierazgarri bakoitzerako, ondorio horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zer garapen-tresnatan txertatuko den zehaztuko da.

Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.

Hain zuzen ere, akuiferoan izan dezakeen eraginarekin lotuta, azterketa hidrogeologiko bat egin beharko da, hala badagokio, araubide hidrogeologikoan izan dezakeen eragina prebenitzeko edo minimizatzeke.

Argi-kutsadurari dagokionez, hasierako dokumentu estrategikoak barnean hartzen du txosten luminiko bat. Bertan, Plan Partzialaren 6. aldaketak eremuaren inguruetarako - Salburuko KBE eta HBBE eremuak barne- proposatzen dituen erabileren antolamenduaren ondoriozko eragin luminikoaren ebaluazioa jasotzen da. Azterketaren emaitzek erakusten dute hezegunera iristen diren argiztapen-mailak gaintitzen dituztela, kalitate-helburutzat hartuta azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuan (kanpoko argien instalazioetan energia-efizientziari buruzko erregelamendua onartzen duena) eta bere jarraibide tekniko osagarrietan (EA-01 eta EA-07 artekoetan) parke naturaletarako eta babestutako beste espazio batzuetarako (Natura 2000 Sarea barne) ezarritakoak. Helburu horiek lortzeko, zenbait gomendio eta zuzenketa-neurri proposatu dira. Alderdi horiek zehaztasun handiagoz adierazi beharko dira ingurumen-azterketa estrategikoan.

Horrez gain, ingurumen-azterketa estrategikoak aurreikuspen hau ere identifikatu beharko du: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartuta dauden proiektuena, Plana etorkizuneko baimenerako marko edo esparru dutenena, alegia. Hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ere ezarriko dira.

Azkenik, ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (21/2013, abenduaren 9koa) eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu hainbat neurri, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko (IHOB)».

5. Aukerak hautatzeko prozesua

Aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat sartuko da, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta Planaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituen; batez ere, ingurumen-helburuekikoak (zehazki, landarediaren kontserbazioa, Batasunaren intereseko fauna eta habitatak, hezegunaren babesa, lotura ekologikoa eta zarata).

Ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartu behar du ezer ez egitearen aukera. Bada, aukera horretan, Planaren eremuak gaur egungo egoeran jarraituko luke (0. aukera). Plana aplikatu ez eta gaur egungo egoeran jarraituz gero, aztertu beharko da zein izango litzatekeen arlo garrantzitsuen eboluzio gertagarriena.

Proposatutako soluzioa justifikatu beharko da, eta jarduketan dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die horietako bakoitzerako dauden soluzio tekniko guztiei ere.



Azterketa horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitzen diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Atala bukatzeko, hautatutako aukera argudiatu beharko da, eta, nolanahi ere, bermatu egin beharko da hautatutako aukera teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare- eta ingurumen-osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira, eta, behar izanez gero, efektu esanguratsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, ebazpen honetako Lehen.2.E.2 apartatua betetzeko, baita, kasu bakoitzean, datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

7. Laburpen ez-teknikoa

Azterketak barnean hartuko du aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, herritarrek oro har ulertzeko moduko eta aztertutako alderdi guztiak lantzen dituen informazio zehatzarekin, baita informazio grafikoarekin ere, dokumentu autoaskia eta azterketarekiko berarekiko independentea izan dadin.

F. Oinarritzako organoak kontsultatu beharko dituen eragindako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatzea.

Ebazpen honetako kontsulta-izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda osatzeko, halaxe xedatzen baitute urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, 12. artikuluan, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, 22. artikuluan. Ingurumen-organoak, ebazpen honetako aurreko apartatuetan aipatu bezala, honako hauei egin die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (Uraren Euskal Agentziaren bitartez).
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza.
- Arabako Ekologistak Martxan.
- Hontza Natura Elkartea.
- GADEN (Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea).

- «Eguzkizaleak» aisialdirako elkarteak.

G. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateak, iraupena eta epeak zehaztea.

Organo substantiboak, edo, hala badagokio, organo sustatzaileak (aztergai dugun honetan biak bat datoz) Plan honen hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko ditu, gutxienez, 45 egunez. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, gutxienez, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikuluen arabera, gehienez ere hamabost hilabeteko epea izango da Azterketa eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko, irismeneko dokumentu hau erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

H. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluen arabera, kualifikazio profesionalei eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute ingurumen-azterketa estrategikoa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Ingurumen-azterketa estrategikoak eta haren eranskin guztiek (eragin akustikoari buruzko azterketak, adibidez) pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, eta horien tituluak eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi beharko dituzte. Identifikazio horren barruan, izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea adierazi beharko dituzte, edo helburu berberak dituen beste dokumentu baten kodea (elkargoko zenbakia adieraziz gero, elkargo profesional zehatz baten erregistroarekin bat egin beharko du). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Horiek dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, administrazioak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek behar den koherentzia errespetatu beharko dute, bai haien artean bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada; hartara, ez da oztopatuko erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana, baizik eta erraztu egingo da.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoaren atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inkaktuak, bi kasuetan, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi beharko da.
4. Behar den apartatuetan, planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa gehitu beharko da (gutxienez, Planaren eta aurreikusitako jarduketaren informazio kartografikoa aurkeztuko da). Planoak PDF formatuan aurkeztu beharko dira, eta



geoerreferentziatuta egon beharko dute; hau da, PDFek eremuaren koordinatuak jaso beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean.

5. Analisi teknikoa behar bezala egin ahal izateko, pantailaratzeko PDF formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da, shape formatuan (UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilia), eta ezingo da 10 Mb baino gehiagokoa izan. Shape fitxategia ZIP fitxategi batean entregatuko da konprimituta, dituzten 4 fitxategiek osatuta: .shp, .shx, .dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea:

eremua_adibidea.shp
eremua_adibidea.shx
eremua_adibidea.dbf
eremua_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodearekin eta tituluarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.

7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu beharko da, horretan oinarrituta egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.

8. Testuetan zehar aipatutako eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak aurkeztu beharko dira dokumentazioarekin batera. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.

9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkaturtat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, lerrokadak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eskatu ahal izango da, kontraesanezko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.

10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplika daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta inprimakiak erabilia; zehazki, helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>

11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkeztzen bada, gehienez, 30 MB izango ditu, eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartzeko.

12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zer orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.

13. Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. Ebazpen hau Gasteizko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.



Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental
IVAN PEDREIRA LANCHAS

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 19a.